



3. ERANSKINA: Ustiapeneko titularraren betebeharrak:

Abeltzaintza ustiapenaren liburuan idatzi behar ditu ustiapeneko animalien sarrera eta irteera guztiak, data, animalien kopurua eta identifikazioa, jatorria eta destinoa adierazita.

Ustiapeneko animalien irteerak eta sarrerak jakinarazi behar dituzte, eskualdeetako nekazaritza bulegoen bitartez, Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoko Departamentuaren **trazabilitateko datu-baseetan (Sitran-Gipuzkoa)** erregistratzeko.

Jakinarazteko epea. ZAZPI eguneko gehieneko epea, ustiapenetik animaliak irten edo ustiapenean sartzen direnetik kontatzen hasita.

*Animaliak mugitzeko gida baliabide informatikoen bidez egina badago edo Web orriko sarbideen bidez, abeltzainek egin beharreko **irteera jakinarazpena egintzat joko da** animaliak mugitzeko gidaren emisioa onartuta. Nolanahi ere, abeltzainak gidaren kopia bat artxibatu behar du ustiapeneko liburuan.*